

## BILLERAKO ALABAK AMA MARIARI.

### KANTARTEA.

*Ama maite María,  
Egiguzu lagun;  
Zure bitartez Jesus  
Ikusi dezagun.*

### ALABANZAK.

Zeru eder goyetan  
Nola aingeruak,  
Ala ditugu jarri  
Lurrean koruak;  
Lagundurik Birjiña  
Amoriyotsuak,  
Zerura giyatzeko  
Zuzenki pausuak.  
*Ama maite, etc.*

María, sortu ziñan  
Mancha-gabekua,  
Santidade guziyaz  
Apaindutakua;  
Aingerubak ziyoten:  
¡Miragarritzkoa!  
Eguzki eder ori  
¿Zeiñ da orrelakua?  
*Ama maite, etc.*

Ebaren pekatuba  
Bide zalarikan,  
Infernuko etsaya  
Nagusi jarri zan;  
Baña Birjiña Amak  
Oñperaturikan,  
Gugan ez dauka oraiñ  
Esku-biderikan.  
*Ama maite, etc.*

**Garbitasuna eskatzeko**

OTOITZA:

Aingeruzko liriyo  
 Estimagarriya  
 Usai gozozko belar  
 Zerutik jechiya,  
 Gorde nazazu, Ama  
 Guziz maitatiya,  
 Ez dezadan zikindu  
 Birtute garbiya.  
*Ama maite, etc.*

**Estadu bat aukeratzeko**

OTOITZA:

Estadu bat aututzen  
 Zer egiñ jakiñ ez;  
 Zure argitasuna  
 Indazu mesedez;  
 Ez nadilla ichutu  
 Griñaren indarrez,  
 Aukeratu dezadan  
 Komeni dan bidez.  
*Ama maite, etc.*

**Koruben ugaritzea eskatzeko**

OTOITZA:

Zure koru ederrak  
 Ugaritutzeko,  
 ¡Arren! dizut eskatzen  
 Grazi egiteko:  
 Atozte, bai, gazteak,  
 Zeruratutzeko,  
 Birjiña deyez dago  
 Argana joateko.  
*Ama maite, etc.*

PEKATARIYAK ON-BIYURTU DITEZEN

**otoitza:**

Infernuko kateaz  
 Gogorki loturik,  
 Pekatari tristeak  
 Daude ichuturik:  
 Ama errukizkoa,  
 Zuk argi egiñik,  
 Ez ditezela gerta  
 Betiko galdurik.  
*Ama maite, etc.*

**Jaunaren aserrea paketzeko**

OTOITZA:

¡O pekatu galgarri  
 Madarikatuba!  
 Aserreturik dauka  
 Jaungoiko santuba:  
 Entzun, Ama, biguña,  
 Gure erreguba;  
 Palakatu Jaunaren  
 Gorroto justuba.  
*Ama maite, etc.*

**Birjiñari eskerrak emateko**

OTOITZA:

Milla esker, Zeruko  
 Erregiñ aundiya;  
 Zuretzat nere biyotz,  
 Anima: guziya.  
 Izan zaite anparo,  
 Emen giyariya,  
 Ta gero Jesusekiñ  
 Betiko gloriya.  
*Ama maite, etc.*

TORIBIO DE IRIONDO.